

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA: CITYFURGO

Idea zaparrada egin ondoren, bost enpresa aukeratu ditugu: lanera joan autobus batean spinning egiten, bizikleta estatikoak energia sortzeko, denda bat eskola barruan bokatak eta janaria saltzeko, etxean zerbait galtzerakoan sentsoreen bidez aurkitzea eta esatea eta azkenik, bidaiatzeko furgonetak eta autokarabanak eskeintzen eta bidaiak prestatzen dituen enpresa. Ostean, akordio batetara iritsi gara.

Berdinketa atera ondoren, aukeratu dugun ideia, azkena izan da, enpresa bat non hainbat motatako furgonetak eta autokarabanak eskeintzen ditugun eta bidaiak antolatzen dugu plus batzuekin. Gure enpresak bidaiak antolatzen ditu bezeroen eskaeren arabera. Mota askotako plusak ditugu bezeroaren ezaugarrien arabera. Gure enpresaren izena Cityfurgo da. Lau motatako pack-ak ditugu: mendikoa, hiriak bisitatzekoa, gastronomikoa eta pertsonalizatua.

Hasteko, mendikoa daukagu. Aukera honetan hainbat azpimultzo daude, esaterako: parke naturalak bisitatzeko, haitzuloetara joatea, naturatik bizikletaz ibiltzea... Gainera, gidari lokal bat bezeroen eskura izateko aukera dago.

Beste aukera bat hiriak bisitatzekoa da, non hiri bakoitzeko lekuri garrantzitsuenak eta interesgarrienak bisitatzeko gain leku turistikoaren sarrerak erosten ditugun. Gainera leku ez turistiko batzuk gomendatzen ditugu. Adibidez Gasteizeko mural famatuena ikusteko tourra... Hirietan ere eleberrietan oinarritutako bisita gidatuak eskaintzen ditugu: adibidez Gasteizen "El Silencio de la ciudad blanca", "La mujer del Reloj"...

Azken aurreko mota gastronomikoa da, non egun bakoitzean jatetxe famatuena sukaldara sartzeko aukera ematen dugun eta eskualdeko plater famatuena sukaldatzen ikasteko ikastaroak eskaintzen dugun eta ondoren jateko aukera ematen dugun.

Azkena personalizatua da. Hori antolatzeko bezeroen adinetan oinarritzen gara. Adibidez: 60 urteko pertsona bat etortzen bazaigu bidaiak lasai bat antolatuko diogu esate baterako bainuetxe batera joatea, ibilaldi lasaiak eta errazak, zoo bat bisitatzeko...

IBILGAILUEN DESKRIBAPENA

Bidaiak egin ahal izateko, **3 furgoneta** erosiko ditugu. Bidaiatzeko prest egoteko hainbat aldaketa egin beharko dizkiegu. Hona hemen furgoneta bakoitzaren deskribapena eta egin behar zaizkien aldaketa guztiak:

Lehenengo furgoneta Renault Camper modelo da, bigarren eskuko furgoneta hau 2 eserleku ditu eta lo egiteko beste 2 leku. 13.000€-tan erosiko genuke baina bezeroarentzat erosoagoa eta erakargarriagoa izan dezan aldaketa batzuk egin beharko genituzke; kanpoko aldean enpresaren logoa, webgunea, telefonoa, gmail-a eta enpresaren deskribapen labur bat ipiniko genuke. Web desberdin batzuk ikertu eta gero, Valentziako enpresa bat arkitu genuen balorazio onak zituena eta prezio eskuragarria. Orduan, kanpoko diseinuaren prezioa 150€ kostatuko litzazuke. Barrutik ez genuke aldaketa handirik egin beharko, aldaketak egiterakoan, dekorazio kontua izango litzateke. Furgoneta beharrezko guztiarekin honituko genuke, janaria prestatzeko: platerak, edalontziak, kazolak, pospoloak... Lo egiteko: sabanak, burkoak, eltxo-sarea... Garbiketarako: jaboia, espartzu, komuneko papera.... 120€ kalkulatu ditugu gutxi gorabehera. Guztira furgoneta hau 13.300€ kostatuko litzazukela kalkulatu dugu.

Bigarrena, Hyundai markakoa da, furgoneta hau erosteko, 13.000€ inbertituko genituzke. 7 eserleku ditu bidaiatzeko eta 2 pertsona lo egin dezakete. Baita ere erretulatu egingo genuke (150€). Aurrekoa ez bezala, furgoneta hau ez dauka sukaldatxorik, beraz su txiki bat eta gas kartutxoak erosi beharko genituzke (30€). Sukaldatzeko tresnak, lo egiteko eta

garbiketarako beharrezkoa dena... eskainiko genuke, bezeroak pila bat gauza eraman ez dezaten (120€). Dutxa hartu nahi izatekotan, ura prest izango dute. Gainera, aterpetxo bat eta aulki pare bat sartuko genituzke furgonetan terraza moduko bat prestatzeko (100€). Guztira 13.400€ kalkulatu ditugu.

Hirugarrena, Fiat Ducato bat da, furgoneta hau erosteko 14.000€ inbertituko genituzke. 3 eserleku ditu bidaiatzeko eta lo egiteko. Aldez aurretik erretulatu egin beharko genuke (150€). Kasu honetan aire giratua falta zaio gidariaren lekuan, konponketa hori 100€ kostatuko litzazuke. Sukaldea du barnean, beraz soilik hornitu behar izango genuke (platerrekin, kazolekin...). Bestetik, eskaintzen ditugun ibilgailu guztiak bezala, lo egiteko eta garbiketarako beharrezkoa dena eskainiko genuke (120€). Gainera, aterpetxo bat eta aulki pare bat sartuko genituzke furgonetan terraza moduko bat prestatzeko (100€). Guztira 14.500€ kalkulatu ditugu.

Furgonetaz gain, beste **hiru autokarabana** erosiko ditugu. Lehenengoa, Fiat Ducato markako autokarabana bat da, hau erosteko 29.000€ inbertitu beharko genituzke. 6 eserleku daude bidaiatzeko eta lo egiteko. Furgonetak bezala, autokarabana guztiak erretulatu egingo ditugu, kasu honetan garrestia izango litzateke, autokarabanaren tamainagatik (350€ gutxi gorabehera). Mekanikoki ez genuke aldaketak egin beharko; ordea, estetikoki aldaketak batzuk egin beharko genituzke, esaterako, gortinak kenduko genituzke eta horren ordez isolatzaileak jarriko genituzke. Honez gain, eserlekuen eta sofaren forrua aldatuko genuke, erosoagoa izan dadin (300€). Bestetik, beharrezko guztiarekin honituko genuke, janaria prestatzeko: platerak, edalontziak, kazolak, pospoloak... Lo egiteko: sabanak, burkoak, eltxo-sarea... Garbiketarako: jaboia, espartzu, komuneko papera.... 120€ kalkulatu ditugu gutxi gorabehera. Guztira 29.770€ kalkulatu ditugu.

Elnagh Atmos autokarabana gure bigarren aukera da, hau erosteko 22.900€ inbertitu beharko genituzke. 4 eserleku ditu bidaiatzeko eta 7 lo egiteko. Horri, errotulazioaren kostua gehitu behar genioke. Mekanikoki ez genuke aldaketak egin beharko; ordea, estetikoki aldaketak batzuk egin beharko genituzke, esaterako, gortinak kenduko genituzke eta horren ordez isolatzaileak jarriko genituzke. Honez gain, eserlekuen eta sofaren forrua aldatuko genuke, erosoagoa izan dadin (300€). Bestetik, beharrezko guztiarekin honituko genuke, janaria prestatzeko: platerak, edalontziak, kazolak, pospoloak... Lo egiteko: sabanak, burkoak, eltxo-sarea... Garbiketarako: jaboia, espartzu, komuneko papera.... 120€ kalkulatu ditugu gutxi gorabehera. Horrez gain, koltxoiak aldatu beharko genituzke, autokarabanak 3 ohe ditu beraz, hiru koltxoiengatik 240€ ordaindu beharko genuke. Besteak ez bezala, honi garbiketa sakon bat behar duela pentsatu dugu (70€). Guztira 23.630€ kalkulatu ditugu.

Gure azkenengo autoa Rimor Katamarano Light modeloko autokarabana bat da, hau erosteko 29.500€ inbertitu beharko genituzke. 6 eserleku ditu bidaiatzeko eta lo egiteko. Horri, errotulazioaren kostua gehitu behar genioke. Mekanikoki ez genuke aldaketak egin beharko; ordea, estetikoki aldaketak batzuk egin beharko genituzke, aurrekoa bezala, gortinak kenduko genituzke eta horren ordez isolatzaileak jarriko genituzke, gauean hotzetik babesten dutenak eta egunean zehar, argia sartzeko, kendu ahal direnak. Honez gain, eserlekuen eta sofaren forrua aldatuko genuke, erosoagoa izan dadin, horretarako tapizari batekin harremanetan jarri behar ginateke (300€). Bestetik, beharrezko guztiarekin honituko genuke, janaria prestatzeko: platerak, edalontziak, kazolak, pospoloak... Lo egiteko: sabanak, burkoak, eltxo-sarea... Garbiketarako: jaboia, espartzu, komuneko papera.... 120€ kalkulatu ditugu gutxi gorabehera. Horrez gain, koltxoiak aldatu beharko genituzke, autokarabanak 3 ohe ditu beraz, hiru koltxoiengatik 240€ ordaindu beharko genuke. Guztira 30.160€ kalkulatu ditugu.